

M.U.-k Enpresa Zientzien Diplomaturako lehenengo promozioko 15 ikasleri diplomak eman dizkie

2007/08/05

Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateak eman dizkie titulu akademikoak **Enpresa Zientzien Diplomaturako** lehenengo promozioko 15 ikasleri. Diplomak banatzeko ekitaldia 18:00etan izan da, **FICOBAn** (Irun).

Diplomak banatzeko ekitaldi akademikoan Mondragon Unibertsitateko Errektore Iosu Zabala, Enpresa Zientzien Fakultateko Dekano Lander Beloki, Mondragon Unibertsitateko Zuzendari Begoña Ugarte, Bidasoako Campuseko (Irun) Koordinatzaile Larraitz Sein eta Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Saileko kabinete-buru José Manuel Bujanda izan dira. Azken horrek txosten bat azaldu du, "Etorkizuna ere gaur erabakitzen da. Y-a" gaiari buruz.



Enpresa Zientzien Diplomatura

Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Diplomaturako ikasketek, enpresen kudeaketari buruzko ikuspegi orokorraz gain, mugaz gaindiko enpresa-ingurunean berebiziko garrantzia duten jardueretan espezializazioa ematen dute: "Enpresa Logistika eta Garraioa" eta "Nazioarteko Merkataritza" dira jarduera horiek.

Orobat, Enpresa Zientzietan diplomatutako unibertsitarioei euren lanbidea garatzeko irekitzen zaien esparruak beste jarduera batzuk hartzen ditu barne, hala nola: nazioarteko bezeroen eta hornitzaileen kudeaketa, horniduraren kudeaketa eta outsourcing-a, garraioaren kudeaketa, bezeroekin eta hornitzaileekin negoziatzea, biltegiatzearen kudeaketa, ekoizpenaren kudeaketa, finantza-kudeaketa, etab.

Lehenengo promozioko ikasleei tituluak eman dizkien diplomatura horretako ikasketa-plana hiru ikastaro akademikotan egituratuta dago, guztira 207 kreditu dituztenak. Irakasgaiek honako arlo hauek jasotzen dituzte, besteak beste: Matematika Aplikatuak, Finantzak eta Fiskalitatea, Ekonomia, Enpresen Antolamendua eta Marketing eta Zuzenbidea.

Titulu hau abian jarrita, Mondragon Unibertsitateak helburu argia du: ikasleen artean espiritu ekintzailea sustatu eta, beraz, titulazioaren bidez, gaitasun eta trebetasun egokiaz hornitzea, enpresetan proiektu berriak (nola produktuak hala negozio-lerroak) garatu ditzaten eta baita euren konpainiak sortu ditzaten ere. Hau da, ikasleek ekiten ikasteko helburua du tituluak.